



Kaixo guraso:

Datorren ikasturte hasierako argibide batzuk ematera gatozkizue.

Irailean osasun egoera honetan aurkitzen bagara/ osasun egoerak okerrera egiten ez badu, Hezkuntza Sailaren esanetan, ikastetxera normaltasunez itzuliko gara. Hezkuntza-jardueran segurtasun eta osasun-neurri batzuei eutsiko zaie, betiere Osasun Saileko agintarien jarraibideei jarraituz:

- Eskuen higieena.
- Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena.
- Kontaktu kopurua murriztea.

Azpimarratu beharra dago eskolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintoma hauetako batzuen agerpena zaindu beharko dutela: 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna eta usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren Osasun Zentrora deitu beharko dute.

• IKASTURTE HASIERA

Ikasturtea irailaren 7an, astelehena, hasiko da, aurrez aurre, etapa eta maila guztietan.

- Irailaren 7tik 18ra goizez izango dira klaseak.
- Irailaren 21etik aurrera, goizez eta arratsaldez.
- 14, 15 eta 16 jaiegunak dira.



Abuztuaren amaieran jakinaraziko dizuegu gela bakoitzean sartzeko eta irteteko ordutegia eta tokia, 0 eta 12 urte bitartekoak.

Jarraitu beharreko protokoloaren berri ere emango dugu pandemiaren egoeraren arabera aldatzen baita.

• **BILERA**

- Ikasturte hasierako batzarra irailaren 1ean, arratsaldeko 18:00etan izango da.
- Bilerara etortzea ezinezkoa baduzue, ikastetxean aditzera eman.

GARRANTZITSUA da batzarrera etortzea jarraitu behar den protokoloa azaltzeko eta zuen kezkak argitzeko. Haur gabe etortzea eskatzen dizuegu.

• **JANGELA**

- Jangela irailaren 9an, asteazkena, hasiko da.
- Pandemia eta hartu beharreko neurriak kontuan hartuta, eta lana eta familia uztartzea zaila dela jakinda, eskertuko genuke ez ohikoa izango den ikasturte honetan, zerbitzu hori jantokiko ordua eta gurasoen lan-ordutegia bateratu ezin dituzten familiek erabiltzea. Eskaera hau protokoloak ezartzen dituen segurtasun-neurriak bermatu ahal izatean oinarritzen da.
- Horretarako, abuztu amaieran-irailaren hasieran galdetegi bat jasoko duzue guztia antolatzeko.

Zuzendaritza taldea